



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN ETA SEGURTASUN SAILAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, IKASKIDEEN ARTEKO JOKABIDE DESEGOKIAK, INDARKERIAZKO EKINTZAK ETA ESKOLA JAZARPENA (BULLYINGA ETA ZIBERBULLYINGA) ETA, ORO HAR, ESKOLA-EREMUAREN BARRUKO ELKARBITZITZAN ONDORIOAK IZAN DITZAKETEN EGOERA GUZTIAK PREBENITZEKO NEURRIEI BURUZKOA ETA BIDE-SEGURTASUNARI BURUZKOA.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 26a

PARTE HARTZEN DUTE:

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailburuak, Cristina Uriarte Toledo andreak.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko sailburuak, Estefania Beltran de Heredia andreak.

ADIERAZTEN DUTE:

Azken urteotan azterlan askok aholkatzen dute elkarbizitzaren gaia eremu guztietan lantzea, alderdi positiboak ardatz izanda. Eskola-eremuaren kasuan premiazkoa da adieraztea elkarbizitzarako hezteka ez dela gatazkak daudela ukatzea, baizik eta gatazka horiei aurre egiten eta horiek modu positiboan eta eraginkorrean gaingitzen jakitea. Nolanahi ere, kontua da elkarbizitza ahalbidetu eta gordetzen duten estrategietan arreta handiagoa jartzea, elkarbizitza hausten duten kasu larrien aurreko unean uneko erantzunean baino.

Ikastetxeek edozein indarkeria-motaren aurkako konpromisoa hartu eta beren esku dauden baliabideak abian jarri behar dituzte, prebentzio-neurri hezitzaileak martxan jartzeko, era horretan fenomeno disruptibo, asaldatzaile eta bortizik gabeko gune seguruak sortzen laguntzeko.

Azken ikasturteotan ikastetxeei hainbat protokolo, laguntza-dokumentu, orientazio, tresna etab. eskaini zaizkie, elkarbizitzaren kudeaketa eta ikasleen jokabide desegokiaren zuzenketa errazteko eta, bereziki ikaskideen artean hainbat motatako tratu txarrak azaltzen diren egoerei aurre egiteko.

Gainera, horrekin lortu nahi da antzemandako jokabide desegoki guztien kasuan, ikastetxeen jarduera ahalik eta azkarrena, eraginkorrena eta seguruena izatea.

Ikastetxeetan edozein indarkeria-motaren prebentzioa kontzeptu hauetan oinarritu behar da: pertsona guztien eskubide eta betebeharren errespetuan, duintasunaren errespetuan, jokabide prosozialak sustatzen dituzten irizpide hezigarri eta integratzaileetan eta gatazkei heltzeko elkarrizketa erabiltzean. Alderdi horiek guztiak elkarbizitzarako programa eta plan horien muina dira. Horregatik, beharrezkoa da ikastetxeetan indarkeriaren kultura gaingitzeko prozesuak bultzatzea eta horretan sakontzea, ikasleak sozializatzeko ez ezik, baita hezkuntza-komunitateak elkarrizketa, errespetua, erantzukizuna eta komunikazioa elkarbizitzaren oinarriak direla onartzeko ere.

Hezkuntza-administrazioak, Elkarbizitza Planen barruan, elkarbizitza positiboa lantzeko ikastetxeei proposatutako neurri eta prozeduren artean, hauek nabarmendu behar ditugu:



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

- Ikastetxe bakoitzean Elkarbizitzaren Behatokia eratzea.
- Elkarbizitzarekin eta aukera-berdintasuna eta eskubideak errespetatzearekin lotuta dauden gaiei buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea.
- Komunikazio-programak eta gatazketarako bitartekotza-programak ezartzea, horien bidez ikasleek gaitasun pertsonalak eta sozialak eskura ditzaten; hala nola asertibitatea, autoestimua, enpatia eta balio etiko eta moraletan oinarritutako komunikazio-trebetasunak.
- Ikasle-batzordeak eratzea, oro har, elkarbizitza hobetzeko, sor daitezkeen gatazkek antzemateko eta berorien konponbiderako laguntza emateko
- Hezkuntza-komunitate osoarentzako topaketak, hitzaldiak eta tailerrak sustatzea elkarbizitza positiboa eraikitzen bideratuta.
- Hezkuntza-komunitateko sektore guztiak -bereziki, familiak- inplikatzea; hain zuzen, ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko egituretan eta neurrietan parte har dezaten.
- Hezkuntza Saileko programak edota prestakuntza-ekintzak.
- Tutoretza-plana prestatzea, aniztasunaren balio positiboa errespetatzearekin eta aitortzearekin loturiko gaiak sartuta.
- Pertsonaren garapen integralean oinarritutako hezkuntza-eredua lortzera zuzendutako neurriak sustatzea, sexuaren araberako estereotipoak eta rolak alde batera utzita.
- 2017-18 ikasturteetik aurrera, Bizikasi ekimena ezartzea, eskola-jazarpenari aurre egiteko eta euskal Hezkuntza Sistemaren elkarbizitza positiboa sustatzeko.

Gainera, elkarbizitza gizarte-balio bat da, hezkuntza-komunitatearen eta agente sozial guztien lankidetzaren eta konplizitatearen behar dituen.

Hori dela eta, hezkuntzaren eremuak eta beste agente sozial batzuek helburu hori lortzeko burutzen dituzten ekintzen eraginkortasuna eta koherentzia handitzeko lankidetzaren hitzarmenak ezarri behar direla ikusi da.

Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Segurtasun Sailaren arteko hitzarmen honek neurriak eta prozedurak ditu xede, bi eremu horiek elkarbizitza positiboa modu koherente eta osagarrian landu dezaten.

Hitzarmenaren helburua da ikastetxeei laguntzeko estrategietan sakontzea eta baliabideak eta aukerak ematea, eskola-eremuan elkarbizitzan ondorioak izan ditzaketen egoerak egoki kudeatzen laguntzeko eta prebentzio-lanean sakontzeko.

Horretarako, ikastetxeen esku prestakuntza-ekintza edota -jarduera batzuk jarriko dira, gai horietan esperientzia duten Segurtasun Saileko langileek antolatuta, beste prestakuntza-ikuspegi bat emateko asmoz, ikastetxeek egiten duten lanaren osagarria dena.

Funtsezkoa da gune eta esparru seguruak izatea, non eskola-umeek eta gazteek beren garapen osoa lor dezaketen. Horregatik, Segurtasun Sailak, interesa daukaten ikastetxeei, bere laguntza eta parte-hartzea eskaintzen dizkie. Horretarako, prestakuntza-eskaintza bat egiten du prebentzioari eta eskola-elkarbizitza hobetzeari begira eta ikasleengan eragina izan dezaketen arazoei buruzko beste ikuspuntu bat ematen du.

2013ko urriko hitzarmena sinatu zenetik aurrera abian jarritako esperientzia oso modu positiboan baloratu du jarraipen-batzordeak eta orain hitzarmen hori eguneratzea beharrezkoa dela ikusi da, hitzarmenaren helburuetan sakontzeko asmoz, ekintza berriak sartzeko.



HEZKUNTZA SAILA
SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

KLAUSULAK

LEHENEGOA. HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da Hezkuntza Sailaren eta Segurtasun Sailaren arteko lankidetzaren sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan funts publikoen bitartez sostengatuta dauden ikastetxeen zuzendutako prebentzio-ekintzak eta -jarduerak abian jartzeko.

Prestakuntza-ekintza eta -jardueraren bidez hezkuntza-esparruaren barruan neurriak bideratu eta bultzatu nahi dira eta berorien ezarketan ere sakondu nahi da. Neurri horien helburua hau da: jokabide desagokiak eta indarkeriazko ekintzak prebenitzea, faktore positiboak edo prebentiboak babestea eta sustatzea, eta elkarbizitza egokia aldatzen duten faktoreak gutxitzea edo neutralizatzea. Neurri horiek lehentasunez arreta berezia jarriko dute ikaskideen arteko tratua txarrak eta eskola-jazarpena (bullyinga eta ziberbullyinga) agertzen diren kasuetan eta bide-segurtasunean.

Gainera, horrek lagunduko du Ertzaintzak guztion eskubideak eta askatasunak babesteko egiten duen lanaren rola gazteen artean sozializatzen.

Era berean, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, bi sailtako teknikariek batera egiteko prestakuntza-saioak emango dira, kontu hauek tratatzeko orduan ikuspuntu eta hizkera komun bat finkatzeko asmoz.

BIGARRENA. PRESTAKUNTZA- EKINTZAK ETA -JARDUERAK:

1.- Sailak eta Ertzaintzak hitzarmen honen esparruaren barruan garatu beharreko prestakuntza-ekintzak eta -jarduerak, honela daude banatuta:

- a) Ikastetxeetan garatu beharreko ekintzak,
- b) Bisitaldiak polizia-zentroetara eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiara.
- c) Ikasleek eta irakasleek bide-segurtasunarekin lotutako prebentzio jardueretan eta jardueraren hezigarrietan parte hartzea, besteak beste, proiektu ibiltari honetan: Don't be dummy ("Para ti no hay repuestos" / "Zuk ez duzu ordezkorik").

2.- Ikastetxeetan garatu beharreko prestakuntza-ekintzak eta -jarduerak hitzarmen honen jarraipen-batzordeak eguneratu ahal izango ditu ikasturte bakoitzean eta, funtsean, gai hauekin izango dute lotura:

- Interneten bidezko nabigaziotik sortutako arriskuak,
- Ikaskideen arteko tratua txarrak eta eskola-jazarpena,
- Gizalegearen aurkako jokabideak eragozteko eta gizalegezko balioak sustatzea,
- Droga-kontsumoaren errealitatea eta ondorioak,
- Bide-segurtasuna: bide-segurtasunari buruzko oinarriko kontzeptuak ezagutzea eta barneratzea, ikasle eta irakasleentzako kontzientziatze-ikastaroak eta material didaktikoak lantzea.
- Mendiko, hondartzako eta barne-uretako kirol- edo jolas-jardueretan hartu beharreko prebentzio-neurriak.
- Gazte talde antolatuta eta bortitz berriak,
- 112 Larrialdietako telefonoa. 112 zer da?,
- Genero-indarkeria,
- etab.



HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

3.- Ikasleak Ertzaintzako zentroetara eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiara joateko bisitaldiak programatu dira.

Bisitaldiek programazioan agertzen den gutxieneko eta gehienezko lagun-kopurua izango dute. Adierazitako gutxieneko lagun-kopurura iritsi ezik, ikasturte edo ikastetxe batzuei proposamena egingo zaie bisitaldia elkarrekin egiteko.

Bisitaldian ikasleei Ertzaintzaren polizia-lanaren eta antolakuntzaren alderdi batzuk erakutsiko zaizkie eta, horrez gain, hitzarmenean jasotako gaietako bati buruzko dibulgazio-ekintzak egingo dira.

4.- Bide-segurtasunari buruzko ikastaro bereziak eta Don't be Dummy ("Para ti no hay repuestos" / "Zuk ez duzu ordezkorik") prebentzio-programa ibiltaria, bide-segurtasunaren inguruan kontzientziatzeko. Horrek trafiko istripuen kausak eta ondorioak ezagutarazi eta sentsibilizazio aholkuak zabaldu nahi ditu, istripuak prebenitzeko helburuarekin. Nagusiki unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako gazteei zuzenduta dago eta horren helburua da Euskadiko gazteak arlo hauen gainean kontzientziatzea eta sentsibilizatzea: bide segurtasuna, mugikortasun iraunkorra, arduraz gidatzea eta trafiko istripuen prebentzioa.

Prebentzio-programa hori Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak bultzatzen du eta antolatzeko Udalen lankidetzara beharrezkoa izango da, Udalak udalerriko eta haren inguruko ikasleak hartzeko lekua daukaten lokalak dohainik lagatzeko prest egon behar baitu.

5.- Prestakuntza-ekintzak edo -jarduerak programatzeko orduan, kasu bakoitzean xede dituzten ikasleen adina kontuan hartuko da eta edukiak eta hizkera parte-hartzaileen adinera moldatuko dira.

Prestakuntza-ekintza edo -jarduera bakoitzeko parte-hartzaileen gehienezko edo gutxieneko kopurua programazioan zehaztuko da; hain zuzen, parte-hartzaileekiko elkarreragina ahalbidetzeko moduan.

Jarduera horiek modu bateratuan antolatu ahalko dira ikastetxe batzuentzat, betiere beroriek txikiak badira eta hala egin ahal bada.

Ekintzak eta jarduerak emateko hizkuntza ikastetxeen eskakizunetara egokitzen saiatuko da; dena den, ahal dela euskaraz emango dira.

Jardueraren iraupena bere planifikazioan zehaztuko da eta programazio horren eta sortuko den dinamikaren arabera izango da.

Ekintzak amaitu ondoren bertan dauden ikasleei gogobetetze-inkesta anonimoa emango zaie, hitzaldia hobetze aldera bere formatuaren eta edukiaren berregokitzapena aztertze helburuarekin. Era berean, irakasleen iritziak erabilia, dibulgaziozko jarduera hobetzeko helburuarekin, ikastetxe bakoitzean ematen den gai-mota bakoitzeko inkesta bakar bat emango da.

HIRUGARRENA.- KONPROMISOAK.

1. Segurtasun Saila prestakuntza-ekintzak eta -jarduerak antolatzeaz eta emateaz arduratuko da, ikastetxeentzako kostu gehigarririk gabe eta jarraian azalduko dena alde batera utzi gabe.

2. Ikastetxeek lokala eta instalazioak eta behar diren ikus-entzunezko baliabideak jarri beharko dituzte, ikastetxeetan burutu beharreko prestakuntza-ekintzak direnean. Eskuarki, deitutako lagunak egoteko leku nahikoa beharko da eta ikus-entzunezko baliabide egokiak jarriko dira (proiektagailua, pantaila, bozgorailuak, internetekiko konexioa duen ordenagailua).



HEZKUNTZA SAILA
SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

3. Trafiko Zuzendaritzak sustatzen dituen bide-segurtasunaren arloko proiektuen eta jardueren kasuan, antolaketa zuzendaritza horri dagokio eta beraz, hura arduratuko da ekitaldiak programatzeaz, erakusteko lokalak kudeatzeaz, ikastetxeetako parte-hartzea koordinatzeaz eta behar diren material didaktikoak zabaltzeaz.

Ikasleen lekualdaketa antolatu eta koordinatzeko lana ikastetxeen ardurapean egongo da, prestakuntza-jarduera beste ikastetxe batean egiteko zein polizia-zentro baterako edo Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarako bisitaldia egiteko.

Prestakuntza-ekintzak eta -jarduerak egin bitartean ikasleek portaera ona izatea ikastetxeetako arduradunei dagokie, eta horregatik arduradun horiek uneoro egon behar dute bertan.

LAUGARRENA.- ESKABIDEEN KUDEAKETA.

1.- Lankidetzaz hitzarmen honetan adierazitako jarduerak burutu nahi dituzten ikastetxeek beren mugapeko ertzain-etxeko burutzari zuzendutako idatzi baten bidez egingo dute eskaera, baina Trafiko Zuzendaritzak sustatzen dituen jarduerak badira, Don't be dummy ("Zuk ez duzu ordezkorik" / "Para ti no hay repuestos") proiektua zabaltzeko jarduera barne, Saileko Trafiko Zuzendaritzari zuzendu beharko diote eskaera.

2.- Eskabidea gutxienez hilabete lehenago egin beharko da, era horretan jarduera burutzea eta jarduera hori azaldu behar duten pertsonen prestasuna bat etortzea ahalbidetzeko.

3.- Ikastetxeetan prestakuntza-jarduerak azaltzeko jasotako eskaeren kopurua Segurtasun Saileko langileen prestasunaren eta antolaketa-gaitasunaren menpe egongo da

BOSGARRENA.- JARRAIPEN-BATZORDEA.

Jarraipen-batzordea eratuko da, sail sinatzaileen ordezkari banak osatuta, hitzarmen honetatik sortuko den urteko prestakuntza-eskaintza eta -programazioa zehazteko, baita hitzarmenaren jarraipena egiteko eta haren garapenean hasitako ekintzak ebaluatzeko ere.

Sinadurak

Cristina Uriarte Toledo andrea

**Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako
sailburua**

**Estefanía Beltrán de Heredia Arroniz
andrea**

**Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko
sailburua**



HEZKUNTZA SAILA
SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Eranskina

HITZARMEN HONEN BARRUAN JASOTZEN DIREN PRESTAKUNTZA-EKINTZEN ETA –JARDUEREN ESKAINTZA

A) IKASTETXEETAN GARATU BEHARREKO EKINTZAK:

1.- INTERNETEKO ARRISKUAK

Lehen hezkuntzako 5. mailatik aurrera

Internet bidezko nabigazioan dauden arriskuei buruzko sarrera eta azalpena, arreta berezia hauetan jarriz: adingabeak eraginpean hartzen dituzten arriskuak, zuzenbidearen aurkako jokabideak, ondorio legalak eta penalak eta prebentzio-erak.

Balore hauek sustatu nahi dira: erantzukizuna, pribatutasuna, errespetua eta elkarbizitza.
Iraupena: 1:30 eta 2 ordu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.

2.- ESKOLA JAZARPENA (BULLYINGA)

Lehen hezkuntzako 5. mailatik aurrera

Eskola-jazarpenari buruzko aurkezpena, noiz eta non gertatzen den, inplikaturako pertsonak. Eremu honetan koka daitezkeen portaerak antzematea ahalbidetzen duen gogoeta egitea, biktima gisa zein egile edo lekuko gisa; baita zuzenbidearen aurkakoak eta ondorio legal eta penalak ezagutzea ere.

Prestakuntza honekin hainbat balore garatu nahi dira, besteak beste, elkarbizitza, errespetua, enpatia, berdintasuna, ausardia, erantzukizuna, askatasuna eta duintasuna.

Iraupena: 1:30 eta 2 ordu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.

3.- GIZALEGEAREN AURKAKO JOKABIDEAK

14 urtetik aurrera

Aurkezpen honetan ikasleei galderak egiten zaizkie, jabetu daitezen zeintzuk diren gizalegearen aurkako jokabideek berekin dakartzaten ondorioak eta erantzukizunak. Ahaleginduko da erantzukizunaren, elkartasunaren, errespetuaren, enpatiaren eta tolerantziaren balioak sustatzen.

Iraupena: 1:30 eta 2 ordu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.



HEZKUNTZA SAILA
SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

4.- BIDE-SEGURTASUNA

Ertzaintzak hiru jarduera aurkezten ditu:

- 1.- 5 eta 8 urte bitartekoentzat
- 2.- 9 eta 12 urte bitartekoentzat
- 3.- 13 eta 17 urte bitartekoentzat

Lehenengo jardueraren helburua da gure inguruko eremu motak identifikatzea, espazio horietan seguru egotea ahalbidetzen diguten seinaleen informazioa ezagutzea eta kalean edo kotxean bidaiatzean jokabide egokiak zeintzuk diren jakitea.

Iraupena: 30-45 minutu

Bigarren jarduera bizikleta erabiltzen denerako arauetara eta seinaleetara buruzkoa da.

Iraupena: 1:30 eta 2 ordu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.

Hirugarren jarduera gidariak izango direnei zuzenduta dago, eta istripuen kausa eta ondorioetara buruzko informazioa ematen zaie.

Lehen bi jardueretarako, beti ere aukeraren eta eskuragarritasunaren arabera, Ertzaintzaren dotazioko ibilgailuen erakustaldi bat egingo da.

Iraupena: 1:30 eta 2 ordu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.

Trafiko Zuzendaritzak 3 jarduera aurkezten ditu:

- Bideko lan arriskuak prebenitzeko prestakuntza, unibertsitatez kanpoko Hezkuntza Sailaren menpeko hezkuntza-sistemako langileei zuzenduta.
- Haur Hezkuntzako eta Oinarrizko Hezkuntzako curriculumeko hainbat ikasgaitarako bide-segurtasunari buruzko materialak eta baliabide didaktikoak lantzea.
- Prebentzio-programak maila hauetako ikasleentzat:
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza:
 - "Gerta dakizuke / Te puede pasar programa.
 - Norabide guztiak / Cambio de sentido antzerki-forum programa
 - Derrigorrezkoaren osteko Bigarren Hezkuntza:
 - Don't be dummy! Zuk ez duzu ordezkorik / Para ti no hay repuesto(s)" programa

Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak kudeatzen ditu ikastetxeek jarduera horiek egiteko eskaerak.



HEZKUNTZA SAILA
SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

5.- GENERO INDARKERIA

14 urtetik aurrera

Ikasleei hainbat galdera aurkezten zaizkie, horrelako indarkeria-egoerak eta -jokabideak identifika ditzaten, baita jokabide horien ondorioak eta erantzukizunak ere. Errespetuaren, berdintasunaren, askatasunaren eta duintasunaren baloreak sustatu nahi dira.

Iraupena: 1:30 eta 2 ordu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.

6.- DROGEN KONTSUMOA

14 urtetik aurrera

Ikasleei aurkezpen bat egiten zaie, galdera batzuei erantzunez, droga-kontsumoaren errealitatea eta ondorioak deskubritu ditzaten. Erantzukizunaren, norberarekiko errespetuaren eta asertibitatearen baloreak sustatu nahi dira.

Drogak antzemateko txakurren erakustaldia, beti ere, aukeraren eta eskuragarritasunaren arabera.

Iraupena: 1:30 eta 2 ordu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.

7.- GAZTE TALDE ANTOLATU ETA BORTITZ BERRIAK.

14 urtetik aurrera

Jarduera hau ikastetxeetako irakasleei ere zuzenduta egon daiteke.

Gure inguruan dauden koadrila eta talde antolatu eta bortitz motak aurkeztea eta horietako bateko kidea izateak dakartzan ondorioak ezagutaraztea.

Elkarbizitzaren, errespetuaren, asertibitatearen eta askatasunaren erabilera egokiaren baloreak sustatu nahi dira.

Iraupena: 1:30 eta 2 ordu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.

8.- UR-EREMUETAN ETA MENDIAN DAUDEN ARRISKUAK

Lehen hezkuntzako 5. mailatik aurrera

Mendian, hondartzan eta barne-uretan dauden arriskuei buruzko azalpena eta hartu beharreko prebentzio-eta segurtasun neurriak.

Zuhurtziaren, erantzukizunaren eta elkartasunaren baloreak sustatu nahi dira.

Iraupena: 1:30 eta 2 ordu bitartean, sortzen den dinamikaren arabera.



HEZKUNTZA SAILA
SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

9.- 112 LARRIALDIETAKO TELEFONOA. 112 ZER DA?

5 eta 6 urte bitartekoentzat

Ikasleei galdetzen zaie 112 zer den eta noiz eta nola erabili behar den. Horretarako arrisku egoerak aurkezten zaizkie eta une horietan lagungarri izango zaizkien segurtasun-aholkuak ematen zaizkie.

Iraupena: 30-45 minutu

10.- GURASO ELKARTEEN ESKABIDEAK

Lankidetzeta-hitzarmena indarrean egon den aldian, hainbat ikastetxetako Guraso Elkarteek eskatu dute jarduera horietako batzuk jasotzeko.

Eskaera horri erantzuteko, eskaerarekin bermatu beharko da jardueran gutxienez 30 helduk parte hartuko dutela. Gainera, jardueran ikasleekin lantzen diren eduki berberak landuko dira, gure helburua baita gurasoek jakitea Ertzaintzak beren seme-alabei zein ezagutza aurkezten dien, horrela familiek beraien gainean eragina izan dezaketen gaiei buruz hitz egin ahal izan dezaten.

B) BISITALDIAK POLIZIA-ZENTROETARA:

1. Bisitaldiak Ertzaintzak Erandion eta Oiartzunen dituen zentroetara eta ertzain-etxeetara.

Bisitaldiaren formatua

- Ikasleak eta irakasleak Ertzaintzaren zentrora iritsi ondoren, helduei akreditazioa emango zaie. Berariaz, bestelakorik adierazi ezean, instalazioetan ezin da irudirik hartu.
- Txakur-erakusketa, espezialitateek hori egiteko moduan egonez gero.
- Ertzaintzaren dotazioko zenbait polizia-ibilgailuren erakusketa.
- Prestakuntza-ekintzetan jasotako gairen bati buruzko hitzaldia, eta hori osatuko da Ertzaintzaren egitura, eginkizunak eta dotazioak aurkeztuz. Hitzaldiaren formatua hitzaldi bakoitzaren atalean aipatutakoarekin bat etorriko da.
- Agurra.

Edukiera

Bisitaldietan gutxienez 40 lagun egongo dira eta gehienez 70. Adierazitako gutxienerako lagun-kopurura iritsi ezik, ikasturte edo ikastetxe batzuei proposamena egingo zaie bisitaldia elkarrekin egiteko.

Hitzaldi kopurua: Ikasturtean zehar, hilean gutxienez bisitaldi bat egingo da.



HEZKUNTZA SAILA
SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

2.- Bisitaldia Ertzaintzak Iurretan daukan zentrora.

Bisitaldiaren formatua

- Ikasleak eta irakasleak Ertzaintzak Iurretan daukan zentrora iritsi ondoren, akreditazioa emango zaie. Berariaz, bestelakorik adierazi ezean, instalazioetan ezin da irudirik hartu.
- Ikasgela batera joango dira eta han bisitaldiaren nondik norakoak azalduko dira eta kirol-jardueretako prebentzioari buruzko hitzaldia emango da.
- Mendi-taldearen instalazioetarako bisitaldia egingo da eta han dotazioko ibilgailuak eta materialak erakutsiko dira eta, ondoren, rokodromoan erreskate kasu praktikoa aplikatuko da.
- Urpekaritza taldeko instalazioetarako bisitaldia eta han dotazioko materialak, ibilgailuak eta ontzi arinak erakutsiko dira eta, ondoren, zentroko igerilekuan zenbait urpekaritza eta bilaketa-teknika azalduko dira.
- Helikoptero-taldearen hangarretarako bisitaldia eta bertan erakutsiko dira erabiltzen diren materialak.
- Agurra.

Adin-tartea

Hitzaldia lehen hezkuntzako 6. ikasturtetik batxilergoko 2.era bitarteko ikasleentzat da, baita maila horien baliokideak diren heziketa-graduetakoentzat ere.

Edukiera

Bisitaldietan gutxienez 50 lagun egongo dira eta gehienez 120. Adierazitako gutxienezko lagun-kopurura iritsi ezik, ikasturte edo ikastetxe batzuei proposamena egingo zaie bisitaldia elkarrekin egiteko.

Hitzaldi kopurua: Gehienez hilean bat egingo da, urritik maiatzera bitartean.

3.- Bisitaldia Arkautiko akademiara

Bisitaldiaren formatua

- Ikasleak eta irakasleak zentrora iritsi ondoren, helduei akreditazioa emango zaie. Berariaz, bestelakorik adierazi ezean, instalazioetan ezin da irudirik hartu.
- Instalazioak bisitatuko dira: 50 minutuz gutxi gorabehera, eta, batez ere, budokana, tiro-eremua, gimnasioa eta monolitoa bisitatuko dira.
- Museorako bisitaldiak 40 minututik ordu bete eta 15 minutura bitartean iraungo du.
- Aukera moduan ikastetxeentzat jolas- eta hezkuntza-jarduerak burutuko dira, 30 minutu inguruko iraupenarekin.

Edukiera

50 pertsona ingurukoa



HEZKUNTZA SAILA
SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

ERTZAIN-ETXEETAKO HELBIDE ELEKTRONIKOAK

Adm_bilbao@ertzaintza.eus	Bilbao
Adm_basauri@ertzaintza.eus	Basauri
Adm_gernika@ertzaintza.eus	Gernika
Adm_getxo@ertzaintza.eus	Getxo
Adm_galdakao@ertzaintza.eus	Galdakao
Adm_sestao@ertzaintza.eus	Sestao
Adm_ondarroa@ertzaintza.eus	Ondarroa
Adm_muskiz@ertzaintza.eus	Muskiz
Adm_durango@ertzaintza.eus	Durango
Adm_balmaseda@ertzaintza.eus	Balmaseda
Adm_erandio@ertzaintza.eus	Erandio
Adm_gasteiz@ertzaintza.eus	Vitoria-Gasteiz
Adm_laudio@ertzaintza.eus	Laudio
Adm_laguardia@ertzaintza.eus	Laguardia
Adm_donostia@ertzaintza.eus	Donostia
Adm_eibar@ertzaintza.eus	Eibar
Adm_hernani@ertzaintza.eus	Hernani
Adm_errenteria@ertzaintza.eus	Errenteria
Adm_irun@ertzaintza.eus	Irun
Adm_urolak@ertzaintza.eus	Urola Kosta
Adm_debaurola@ertzaintza.eus	Deba Urola
Adm_oria@ertzaintza.eus	Oria